



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ADIERAZPEN PUBLIKOA EMAKUME GASTEIZTAR BATEN HILKETA MATXISTAREN AURREAN

Gure udalerriko emakume baten aurkako hilketa matxista dela eta, Gasteizko Udalak gaitzespen eta arbuio irmoena adierazi nahi du hilketa horren aurrean, baita biktimaren gertukoei babesa eta hurbiltasuna adierazi ere, behar dituzten baliabide psikologiko, juridiko eta sanitarioak zein babesteko eta harrera emateko baliabideak haien esku jarriz eta haien interesei eragiten dien informazio guztia dutela bermatuz.

Alde horretatik, Gasteizko Udalak, kasuari buruzko berri izan zuenetik, eta informazioa kontrastatu ondoren, horri buruz ahalik eta ikuspegi osoena eta zehatzena izateko, Gasteizko Udalak Indarkeria Matxistaren Aurrean Erantzuna Emateko Protokoloa aktibatzen duen, informazio guztia biltzeko eta erakundearen erantzuna eta biktimen gertukoentzako arreta koordinatzeko. Azpimarratu nahi dugu indarkeria matxista giza eskubideen urraketa larria dela —eta hilketa da matxismoaren adierazpenik larriena—, lehen mailako arazo soziala, nagusiki hura sufritzen eta aurre egiten dioten emakumeen duintasunaren eta osotasun fisiko eta moralaren aurkakoa. Indarkeria mota hori ez dute ekintza isolatuek osatzen: gure gizartea egituratzen duten jokaera esplizituen eta mezu normalizatu eta sinbolikoen sarea da, zeinak emakumeak gizonen mende edukitzeko xedea duen, baita indarrean dagoen sistema heteropatriarkalak ezartzen dituen mugak gainditzen dituen gorputzik, eredurik edota jokaerarik ez onartzeko xedea ere.

COMUNICADO PÚBLICO ANTE EL ASESINATO MACHISTA DE UNA VITORIANA

Ante el asesinato machista perpetrado contra una mujer originaria de nuestro municipio, desde el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz queremos manifestar nuestra más enérgica condena y rechazo a este asesinato, así como nuestro apoyo y cercanía hacia el entorno de la víctima, poniendo a su disposición los recursos psicológicos, jurídicos, sanitarios, de protección y de acogida que requiera y garantizando que cuenta con toda la información que afecta a sus intereses.

En este sentido, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz desde el momento que ha tenido noticia sobre el caso y tras contrastar la información que nos permitiera tener la visión más completa y certera posible sobre éste, activó el Protocolo de Respuesta del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz ante la Violencia Machista para recabar toda la información y coordinar la respuesta institucional y la atención al entorno de las víctimas. Queremos insistir en que la violencia machista es una grave vulneración de los Derechos Humanos, siendo el asesinato la expresión más grave del machismo y un problema social de primer orden que atenta contra la dignidad y la integridad física y moral, principalmente de las mujeres que la sufren y enfrentan. Esta violencia no es una acción o acciones aisladas, es un entramado de conductas explícitas, mensajes normalizados y simbólicos que estructuran nuestra sociedad con el objetivo último de mantener la subordinación de las mujeres a los hombres y de no permitir la existencia de ningún cuerpo, modelo y/o comportamientos que transgredan los límites marcados por el sistema heteropatriarcal vigente.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Bada, Gasteizko Udalak, emakumeen eta LGTBI pertsonen giza eskubideak benetan gauzaten direla bermatzeaz arduratzen den erakunde publikoa denez, neurriak sustatzen jarraituko du udal-erakundeek eta herritarrek oro har edozein eraso matxistaren aurrean berehala eta irmo erantzun dezaten, biktimek lehentasunezko arreta jaso dezaten, eta prebentzio-neurriak gara daitezten emakumei eta LGTBI pertsoneri indarkeriari aurre egiteko tresnak ematearren eta erasotzaileen zigorgabetasun soziala ez onartzearren. Era berean, indarkeria matxistarik gabeko bizitza askeak bermatzeko lanean jarraituko duela hitz eman du Udalak, bere eskumenak erabiliz.

Hori dela eta, Udalak

- Jakinarazten du erakundearen ordezkariak 5 minutuko elkarretaratzea egingo dutela uztailaren 8an, 12: 00etan, Plaza Berrian, "Gasteiz: eraso matxisten aurka" leloarekin.

- Bat egiten du mugimendu feministak deitutako arbuio- eta gaitzespen-ekitaldiekin, eta herritar guztiak gonbidatzen ditu horietan parte hartzera eta gure babesa behar izan dezaketen gaitzespen-ekimenen berri ematera Udalari.

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz como institución pública responsable de garantizar el ejercicio efectivo de los Derechos Humanos de las mujeres y personal LGTBI, seguirá impulsando las medidas dirigidas a que las entidades municipales y la ciudadanía en general responda de manera inmediata y contundente a cualquier agresión machista, se atiende de manera prioritaria a la víctima, se desarrollen actuaciones preventivas para dotar a las mujeres y personas LGTBI de instrumentos que les permitan hacer frente a la violencia y a no permitir la impunidad social de los agresores. Además, el Ayuntamiento se compromete a seguir apoyando y trabajando en el ejercicio de sus competencias, para garantizar vidas libres de violencia machista.

Por todo ello, el ayuntamiento:

- Informa que la representación institucional mostrará su rechazo y condena a este asesinato con una concentración de 5 minutos el día 8 de julio a las 12:00 horas, en la Plaza Nueva, con el lema "Vitoria-Gasteiz: contra las agresiones machistas".

- Se suma a los distintos actos de rechazo y condena convocados por el Movimiento feminista e invita a toda la ciudadanía a participar en ellos así como a comunicar al ayuntamiento otras iniciativas de repulsa que puedan requerir de nuestro apoyo.